

DANIEL CARASSO FELLOWSHIP 2023 II.DEIALDIAN

ESKAERAK AURKEZTEKO BARNE EPEA 2023/03/07RA ARTE (12.00ETAN)

BETEBEHARREKO BALDINTZAK:

- Proposatzaileak 2023an aktibo dagoen ikertalde bateko kideak izan beharko dira. Ikertalde aktiboak dira halakotzat aitortuak izan direnak Eusko Jaurlaritzaren deialdietan edo UPV/EHUren deialdietan.
- UPV/EHUk **proposatutako kontratazio-modalitatea ZTBLren 22. artikulua**k araututakoa da, eta 3 urteko iraupena du. Taldeak 3. urtea finantzatu luke. Kontratazioaren kostu zenbatetsia 52.000 (*) eurokoa da urtean. Kontratazioari buruzko zalantzak Ikerketaren Errektoreordetzara zuzendu daitezke.
- Deialdia zabalik egongo da 2023ko martxoaren 10era arte 14:00etan (Kanpo epea).
- Deialdia edozein zientzia-diziplinatako eta nazionalitateko ikertzaileentzat dago zabalik, doktoretza lortu zutenetik 2 eta 7 urte arteko esperientzia dutenentzat.
- Doktorego-tesiaren defentsa-data 2016ko urtarrilaren 18tik 2021eko urtarrilaren 18ra bitartekoa izan behar da (ikus salbuespenak deialdiaren oinarrietan). Laguntza bakoitza 120.000 eurokoa da kontrataziorako eta 40.000 eurokoa ikerketa-proiekturako.
- Hautagaiak Espainiako unibertsitate edo ikerketa-zentro publiko edo irabazi-asmorik gabeko entitate pribatu bateko ikertzaile finkatuek izendatu behar dituzte,.

(*) Goian adierazitako zenbatekoak gutxienekoak eta behin-behinekoak dira, eta honako hauen arabera alda daitezke: soldata-igoera urte desberdinetan, soldata-osagarrien igoera (hirurtekoak, euskotramoak) edo kalte-ordainen kostuaren doikuntzagatik alda daitezke

Deialdi honetara aurkezten diren eskabide guztiak UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetzaren alde aurreko baimena izan beharko dute.

Horretarako, **dokumentazio hauek aurkeztu** beharko dituzte:

- **Baterako finantzaketarako konpromisoa**
- Pertsona izendatuaren curriculum vitae (formatu librean Word edo PDF formatuan).
- Doktorego-tesiaren irakurketa-data egiaztatzen duen agiria.
- 5 eta 10 argitalpen arteko zerrenda eta laburpen labur bat (Word edo PDF), bai inprimatuak (liburuak, aldizkari zientifikoak, kazetaritza-artikuluak eta orotariko aldizkariak), bai elektronikoak (web-argitalpenak, audioak, bideoak, multimedia-dokumentuak, etab.).
- Argitalpen bakoitzaren PDF kopia bat (3MB artxibo bakoitzeko gehienez).
- Ikerketa-proiektua (gehienez 4 orrialde).
- Izendatzaileak idatzi eta sinatutako izendapen-gutuna. Bertan, proposamena argudiatuko da eta proposatutako ikertzailearen karrera zientifikoa eta akademikoa nola babestuko den azalduko da (adibidez, prestakuntza-lanak, egiten ari diren edo taldearen barruan egingo diren ikerketa-proiektuak, etab.), bai eta bere ikerketa-ildoan eta sartzen den taldearen arteko sinergiak ere.
- Izendatutako pertsonak maila profesionalean lan egin duen edo kolaboratu duen ikertzaileen bi gomendio-gutun.

Dokumentuak ingelesez aurkeztu behar dira Daniel Carasso fundazioaren aplikazioan.

Dokumentazioa UPV/EHUri aurkeztea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 e) artikuluan eta UPV/EHUKo idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Ebazpenean (UPV/EHUREKIKO harreman elektronikoa interes duten pertsonen eta bertan lan egiten duten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoa buruzko jarraibidea onartzen duena) ezarritakoarekin bat etorrituz, eskaera UPV/EHUKo erregistro elektronikoa aurkeztu beharko da (URL <https://egoitza.ehu.eus/es/registro-electronico> helbidean). Eskabidearen destinoan, lehenik eta behin, "Ikerketako errektoreordetza" aukeratu beharko da, eta, bigarrenik, "Deialdien Ikerketa Kudeaketa (U02000256)". Horretarako, honako hau zehaztu beharko da: **"DEIALDIAREN IZENA"** Horretarako, UPV/EHUKo enpleguaren ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabiltzailearen Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo FNMT-CERES Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria erabili beharko dira.

Harremanetarako datuak:

UPV/EHU:

Email: convocatorias.dgi@ehu.eus

Telefono: 946018008

Daniel Carasso eta Nina Carasso Fundazioan:

Email: pilar.martinez@fundacioncarasso.org

Telefonoa: 91 308 43 56